ZERBITZUEN AGIRIAN BILDUTAKO KALITATE KONPROMISOAK BETE IZANAREN JAKINARAZPENA

ERRIBERAKO MERKATUA 2021ko abenduko emaitzak				
Konpromisoa	**Nola neurtzen dugun**	**Helburua**	**Emaitza**	**Oharrak**
Produktuen eskaintza zabala izatea eta une oro bermatuta izatea ohiko kontsumorako produktu freskoen saltokien aukera (arrainak, okelak, frutak, barazkiak, eta beste).	Mota bakoitzeko postuen ehunekoa (arrainak, okelak, frutak, barazkiak, eta beste).	Mota bakoitzeko saltoki bat gutxienez mantentzea.	Fruta-dendak: % 6,2	Bete egin da.
			Arrandegiak: % 26,6	Bete egin da.
			Harategiak: % 39,1	Bete egin da.
			Beste batzuk: % 12,5	Bete egin da.
Saltokiek eta ostalaritzako guneek osasun baldintzak betetzen dituztela bermatzea, hamabost egunean behingo gutxienez ikuskapen bat eginda.	Hamabosteroko ikuskapenen betetze-maila (%).	% 100	% 100	Bete egin da.
Azokako saltokien titulartasunaren eskualdaketak gehienez ere 15 eguneko epean kudeatzea, berriro lehenbailehen irekitzeko.	15 lanegun baino gutxiagoan egiten diren titulartasun aldaketan ehunekoa.	% 100	% 100	Bete egin da.
Eraikina zabalik ordu askoan egon dadin bermatzea, gutxienez 13 orduz urteko egun guztietan; gogobetetasun maila gutxienez 7koa izatea. Oharra: Urtean hurrengo 3 egunak izan ezik: Eguberri, Urteberri eta Errege-egunean.	Zabalik edukitzeko gutxieneko ordutegiaren betetze-maila (%).	% 100	% 100	Bete egin da.
	Zabalik edukitzeko ordutegiak daukan gogobetetasun maila.	≥ 7	7,4 (*)	Bete egin da.
Azoka barrura sartzeko irisgarritasun maila ona bermatzea; gogobetetasun maila gutxienez 7koa izatea.	Azoka barrura sartzeko erraztasunak eragiten duen gogobetetasuna.	≥ 7	8,1 (*)	Bete egin da.

ZERBITZUEN AGIRIAN BILDUTAKO KALITATE KONPROMISOAK BETE IZANAREN JAKINARAZPENA

ERRIBERAKO MERKATUA 2021ko abenduko emaitzak				
Konpromisoa	**Nola neurtzen dugun**	**Helburua**	**Emaitza**	**Oharrak**
Eraikina eta azokako instalazioak egoera onean mantentzea, bitarteko hauekin: – Guztien guneak eta komunak egunero garbituz. – Hondakinak etenik gabe bilduz. Azokaren garbitasuna dela-eta, gogobetetasun maila gutxienez 7koa izatea.	Azokaren garbitasunak eragiten duen gogobetetasuna.	≥ 7	7,3 (*)	Bete egin da.
Azokako instalazioak erabiltzeko behar bezalako egoeran edukitzea; gogobetetasun maila gutxienez 7koa izatea.	Instalazioak erabiltzeko erraztasunak eta haien egoerak eragiten duten gogobetetasuna.	≥ 7	7,5 (*)	Bete egin da.
Solairu bakoitzeko sarrera guztietan informazio panelak jartzea, xeheki azaltzeko, planoarekin batera, zer saltoki dauden eta non dauden.	Informazio panelen kopurua.	11	11	Bete egin da.
Azokako ekitaldi eta sustapenen %100 erraztea, baimenak emanda eta guneak utzita. Urtean gutxienez 12 ekitaldi egiten direla ziurtatzea.	Egindako ekitaldien kopurua.	≥ 12	33	Bete egin da.

(*) 2021ko abenduan erabiltzaileei egindako gogobetetze-inkestaren emaitzak.